Arin Arin

Udaberri Dantza Taldea

ETORKIZUNAREKIN

amestuz

Udaberri dantza taldearen aldizkaria / 20.alea / 2013 urtea / 3€.

Tolosa, 2014ko Urtarrila

Testuak
Julen Telleria
Itzea Urkizu
Irati Hartsuaga

Maketazioa
Juan Urretavizcaya
Iñigo Irurzun

Udaberri dantza taldea
www.udaberri.com
udaberri@udaberri.com
680682560
Kondeko aldapa 20, 20400 Tolosa (Gipuzkoa, Euskal Herria)

Haize berriak iritsi dira Udaberrira. Ezin esan gure sua sasoi txarrean zegoenik, bazuen garra eta bazuen txinparta. Baina suak luzaro irautea nahi bada, behar du indarra, behar du haize berria.

Bi norabidetako haizeek jo gaituzte. Behetik, barrenetik ateratakoa da bata, taldeko sugarren artean ernaldutako brisa gaztea, berria. Kanpotik iritsi zaigu bestea, dantzaren (edo taldearen) suak eta argiak erakarritako haize freskoa. Eta bien artean sortutako zurrunbiloak bizitu digu lehendik genuen garra.

Hemen duzue haize berriek indartutako suak aurten emandakoa. Hurbildu sutondora!

Onintze Hartsuaga

Eginda - Egiteke

Beste ezertan hasi aurretik, eta gauzak argitze aldera, honelaxe antolatzen dira Udaberriren bilera luzeak: egindakoak batetik, egiteko daudenak, bestetik. Eta, hemen ere, halaxe moldatuko ditugu honen aurreko *Arin Arin* aldizkaria eskuartean zenuenetik gaurdaino osatu ditugunak, eta hurrengo *Arin Arina* kaleratu bitarte egiteko asmotan garenak. Asmoak behintzat, gero bete ala ez.

Jantzi berriak

Urteroko erronka izan ohi da Udaberriko armairua astindu, eta jantzi tradizionalen bilduma loditzea. Hala, 2013.a ere urte oparoa izan da, armairua betetzeko lan horretan. Taldeko bost neskak, esate baterako, Gipuzkoako dantzetako traje berriak estreinatu dituzte. Bordondantzako nesken jantziak ere egin dira aurten estreinakoz, sei hain zuzen ere, eta hauez gain, beti behar izaten diren osagaiak ere berritu ditugu aurten: lihozko alkandorak, azpiko gonak, pololoak…

Berriak egiten jarraitzeko intentziorik ere badugu, noski. Tartean, taldeko beste hiru neska jantzi nahi ditugu Gipuzkoako traje berriekin, Xuletinoko jantziteria ere berritu nahiko genuke, eta betiko osagaiak egiten jarraitu, direla txalekoak, zapiak, galtzerdiak… Eta, nola ez, bidean sortzen diren premiei aurre egin, oholtza gainera denak ere txukun eta dotore atera ahal izateko.

Azokak

Horrenbeste bidaia atzerrira, asteburu pasa, atzera eta aurrera, Udaberriko itsulapikoa berriz ere gora ekartzeko asmotan hasi genuen azoketako esperientzia. Tolosan azoka berezia tokatzen zenetan, guk postua jarri eta bertan salgai izan ditugu taldeko produktuak (kamiseta, jertse, DVD eta halakoak), eta baita goiz partean hain ondo sartzen diren salda beroa eta txorixo pintxoa ere. Krisiak krisi-edo, irabaziak ez dira espero bezainbestekoak izan, horregatik, datorren urte berri honetako egiteke moduan, sorpresatxoren bat ari gara prestatzen negozio honi buelta bat emateko. Egon adi eta enteratuko zarete…

Errefortzuak

Udaberriko familia beti ari da handitzen, hazten. Urtez urte, gero eta gehiago izan ohi gara lokaleko mahaiaren bueltan, edo entsegu gelan, edo elkarteko afarietan. Batzuk era naturalean edo sartu ohi dira, txikitatik dantza ikastaroetan ibili, eta adina iritsitakoan taldeko kide izatera pasaz. Azkenak gure neska gazteak izan ziren, Miren Nazabal, Miren Izagirre eta Irati Estarbe.

Bestalde, baina, taldea indartzeko kanpoko fitxaketak ere egiten ditugu batzuetan, gero erabat barrukoak bilakatuko direnak. Aurtengoa aspaldiko urterik oparoena izan da errefortzu edo fitxaketei dagokienez, dantzari eta musikari, lagun berri askok erabaki baitute Udaberriko trenera igo eta bidaian jarraitzea. Iñigo Irurzun, Iñaki Odriozola, Iosu Artutxa, Aitor Azkolain, Aitor Agirresarobe, Beñat Azaldegi edota Ane Artutxa dira Udaberriren hamaikakoan aurten lekua egin dutenak. Biba zuek!

Webgune berria

www.udaberri.com atarian sartu eta dena da berrikuntza, dena da polita, erraza eta ikusgarria. Zaila izan da, baina, honi guztiari forma ematea eta erabiltzaileen eskura jartzea. Emaitza, ordea, ezin hobea izan da. Orain gure atari digitalean izan dezakezu taldearen eta taldekideen berri, edo gure zerbitzuak baliatu, produktuak erosi nahiz multimediarekin ikasi. Sarean ere gure presentzia handitzen eta hobetzen joateko, urrats garrantzitsua. Bisitatu!

Bordondantza parekidea

Egindako asko dago bordondantza parekidearen inguruan, baina egitekorik ere asko geratzen da oraindik. Historiara pasa da 2013. urtea honi dagokionez behintzat, lehenengo aldiz hartu baitute parte emakumeek horren gurea den dantza horretan. San Joan egunean taldeko sei neska ikusi ahal izan genituen prozesioan eta dantzan, baina atzetik soka luzea ekarri duen prozesua izan da, denen inplikazioa, pazientzia eta lana eskatu duena.
Tolosako Udalak berak ere izan du parterik honetan, laguntzeko prest azaldu baita momentu oro. Baina lanik garrantzitsuena Udaberrin bertan egin dute, taldekideekin, arduradunekin, gizonezkoekin, eta, batez ere, emakumeekin. Edo hobeto esanda, emakumeek. Zorionak haiei, eta segi orain arteko sokari tiraka, egiteko asko baitago oraindik ere.

Plaza dantzen arrakasta

Lehengo urtean proposatu genuen, lehen aldiz, helduei zuzendutako ikastaroak izan zitezkeela fandango eta arin-arinetik haratagokoak. Horrela, plazarako dantzen ikastaro orokor bat jarri genuen martxan, eta sekulako erantzuna jaso genuen. Herriko festetan, plazan, dantzarako sor daitezkeen aukera horien aurrean prest egotea da egitasmo honen helburua, eta egindakotik haratago, aurtengoan ere hala jarraituko dugu, berriz ere erantzun bikainarekin.

Fanfarrea

Aspaldidanik airea zebilen ideia zen Lapurdiko dantzak berreskuratu eta berriz ere Udaberriren eskutik taula gainean erakustea. Horretarako, ordea, beharrezkoa zen musika arloa indartzea, eta betiko txistulari, gaitero eta trikitilariez gain, fanfarrea ere osatzea. Ondo egindako lana izan da arlo honetan musika arduradunek egin dutena, eta aurrerago azaldutako fitxaketa berriei esker, klarinete, tronpeta, biolin eta bonbo soinuak ere entzun daitezke orain gurean. Taldea osatu eta, noski, Lapurdiko errepertorioa ikasi. Eta hura jendaurrean defendatu. Bikain aurten fanfarrea, eta oraindik ere lanean jarraitzen dute, jardun horretan hobetzeko.

Euskal jaia, Lizardik antolatuta

Asmoa jakina zen, talde ekintzaile askoren baitan zebilena. Tolosan euskal jai bat egin beharra zegoela eta, asko izan dira aurten bilera askotan ideiak bota, ordenatu eta jaiari forma eman diotenak, Lizardi kultur elkartearen gidaritzapean. Udaberri ere, jakina, tartean. Horrela, atzean utzitako lanaren ondorio, Azaroaren 30ean ospatu genuen Tolosan "Auzolanean" festa. Balorazioa bikaina, eta hurrengo urteetarako ere egiteko polita izan daitekeena..

Batzar orokor jendetsua

2013ko urriaren 12an, larunbatez egin genuen Udaberriko azken Batzar Orokorra. Bai, izena bera bezala bilera garrantzitsu, sakon eta pisuzkoa. Urtean behin errepikatzen den errituala izaten da, uda amaitu ostean, kurtso hasierarekin batera egiten dena. Bertan, aurten urtero bezala, bukatu berri den ikasturteari begiratu diogu. Pasa den urtearen balorazio orokor bat egin dugu, baina Udaberrik bere barnean duen atal bakoitzari begiratuta.
Egindako saioak, bidaiak, elkartrukeak, lorpenak, azioak, ahaztekoak, errepikatzekoak eta zuzentzekoak lupaz aztertu, eta bileraren bigarren saioan, meriendaren ondoren, datorren urte hau prestatzen jardun genuen. Ideiak, planak, asmoak borborka, batzuk aurrera begira egiteko modukoak, besteak ideia hutsaletan geratuko direnak, baina Udaberrirentzat egoki izango liratekeen ekimen eta proiektuak aztertu genituen. Baita, urtero bezala, aldaketak egin ere. Udaberriren eskala, goitik beheraino ez bada ere, barrutik moldatu, eta ondorioz, honela geratu zaigu aurtengorako hamaikakoa. Bozketa bidez denon artean aukeratu genuen koordinatzailetik hasi, eta aho batez erabakitako gainerako lankarguetaraino. Hona, aurtengo Udaberri:

Koordinatzailea

Onintze Hartsuaga
Onintze berandu hasi zen dantzan, 17 urterekin. Udaberriko ikastaroetako fruitua ez den arren, inork baino gogorrago egiten du lan tokatzen zaionean. Eta dantzan ere bai, noski! Izatez erizaina da, taldekideak zaintzeko bikaina.

Koordinatzaile ordea

Itsaso Barrenetxea
Umetan hasi eta gero dantza utzi behar izan zuen belauneko lesio bat medio, baina dirudienez harra indartsuagoa izan zen mina baino... gaztetan berriro hasi zen dantzan eta ez dago Udaberri uzteko prest, ez horixe!

Harremanak

Juan Urretavizcaya
Pailazoa ofizioz eta afizioz, gainerakoei barre eragitea da bere eguneroko zaletasuna. Aktore gisa ere aritzen da eta saltsa guztietan sartzea gustatzen zaio. Langile fina, dantzan dabil 12 urte zituenetik eta beste askoan jarraitzeko asmoa du.

Itzea Urkizu
Ume-umetatik dabil dantzan Itzea, Udaberriren harrobiko altxorretako bat da zalantzarik gabe. Taldetik kanpo kazetari lanetan ibiltzen da eta beraz, bere luma zorrotza aprobetxatzen dugu besteak beste Arin-arin aldizkaria egiteko.

Julen Telleria
Taldeko tanborrero ofiziala dugu Telle. Udaberriko parranda sonatuak zirela eta hurbildu zitzaigun lehenbizi, baina pixkanaka taldeko giroan eta egin beharreko lanean murgiltzen joan da gainerakoekin batera. Kazetari fina, Arin-arin aldizkariko erredaktoreetako bat da noski.

Iñigo Irurzun
Fanfarre eraberrituko fitxajeetako bat da Iñigo. Klarinetea bezain ongi daki adarra jotzen eta taldean gatza eta piperra jartzeko Argiñano bikaina da zalantzarik gabe.

Irati Hartsuaga
Taldeko soinujolea da Irati, kide beteranoetako bat. 14 urterekin taldean sartu zenetik beti egin izan ditu musikarien eta dantzarien arteko zubi lanak. Itzultzailea ofizioz, bere idazle gaitasunak ongi aprobetxatzen ditugu Arin-arin aldizkarian eta gainerako ohar mota guztietan!

Materiala

Xanti Nazabal
Familiako tradizioari ihes egin ezin eta azkenean iritsi zaigu taldera Xanti dantzari fina, Nazabal dinastiaren oinordekoetako bat. Bihotza erdibitua du ordea, eta nola hala saiatzen da dantzaz gain taldeko musikari lanak egiten, ahal duenean txistua, dultzaina edo atabala joz.

Iñaki Odriozola
Odri fanfarreko tronpeta jolea da. Ez zekien ondo non sartzera zijoan Udaberrira deitu ziotenean... Taldean sartu zenetik lanean jarri dugu jo eta ke, eskerrak umorez hartzen duen!

Julen Uranga
Berastegiko morroskoa 13 urte ingururekin etorri zitzaigun Udaberrira mendi aldetik. Urte eta zentimetro batzuk gehiagorekin, dantzaz gain bestelako lanak ere egiten ditu taldean gainerakoen pare, eta tarteka txistua jotzea ere tokatu izan zaio!

Aitor Azkolain
Mutil faltak eragindako erreklutamenduaren emaitzetako bat da Azko. Bidaia bat zela medio engainatu eta akabo, Udaberriren sareetan erori da. Hemendik aurrera dantzan ikasi beharko du eta beste makina bat lan egitea ere tokatuko zaio!

Aitor Jauregi
16 urterekin Amarotz Errepublika Independentetik Tolosako Udaberrira etorri zenez geroztik lanean aritu da gelditu gabe, isilik, txingurrien modura. Mantenimenduko langilea da berez eta edozertarako jotzen dugu beregana, dantzan bezain abila baita lan guztietan!

Garbiketa

Miren Nazabal
Nazabal dinastiaren bigarren oinordekoa da Miren, urte luzez taldeko ikastaroetan ibili ondoren belaunaldi berriarekin taldean sartu dena. Odolean darama dantza eta nabari zaio, baina lanerako fundamentua ere badauka eta jakingo dugu bai, hori aprobetxatzen!

Irati Estarbe
Irati txikitatik ibili da Udaberriko ikastaroetan eta urtetako lanaren ondoren lortu du helduen taldera iristea. Orain bere dantzarako dohainak erakusteaz gain lanerako prestutasuna ere izan beharko du. Musikarako abilezia ere baduenez, inoiz ikusiko ote dugu soinua jotzen?

Ezkontzak

Olaia Etxeberria
Hona hemen Olaia, Iruratik Udaberrira iritsitako dantzari finetako bat. Txikitatik egin du dantzan eta ez dirudi uzteko asmorik duenik. Orain ingeniaritza ikasketak egiten dabil serio demonio, baina Udaberriko entsaioak eta lanak baztertu gabe.

Diruzaintza eta Legedia

Garazi Artetxe
Igarondo igerilekuko squash pista hotzetan ikasi zuen dantzan, hantxe zaildu zituen oinak eta gaur egun oraindik aise astintzen ditu edonon eta edonoiz. Enpresaritza ikasketak amaitu dituelarik, ez da harritzekoa taldeko diru kontuen arduraduna izatea. Pagarik emango ote digu?

Beñat Azaldegi
Erreklutamendu kanpainan bidaiaren karameluarekin engainatu genuen, baina aspaldi zebilen bera taldean sartzeko denbora atera nahian. Eta ez da lan erraza, izan ere saskibaloi jokalaria, bertsolaria, zuzenbide ikaslea eta oro har saltsa guztietako perrexila da!

Ikastaroak

Irati Artutxa
Dantzari fin hau ere txikitatik dabil Udaberrin eta hain berea duen irribarrearekin pasatzen ditu entsaio, bilera eta lanordu guztiak. Musika irakaslea izaki, tarteka animatzen da instrumenturen bat hartzera baina Udaberrin dantza du lehentasun bakar eta nagusi. Hala segi dezala!

Idoia Aiestaran
Taldeko fitxaketarik berrienetakoa dugu Idoia. Gogoz ekin dio dantzari eta baita lanari ere, ongi jakinik taldean sartzeak alde bietarako konpromisoa dakarrela. Orain Gasteizen dabil ikasketak egiten, baina ahal duenero etortzen da entsaioetara eta hori bai, ez du afari batera ere huts egiten!

Irudia eta bideoa

Olatz Artola
Ondoko argazki hauen eta beste hainbaten egilea da Olatz. Gure burua saltzeko zerbait txukuna egin nahi genuela eta hasi ginen berari mesede eske eta atzetik etorri ziren bideoak, argazkiak, web orria… azkenean taldeko kide bihurturik amaitu du erremediorik gabe. Askok dioten bezala, sekta bat ote gara?

Maitane Sarasola
Maitane dantzari berantiarra da, 16 urterekin hasi zen zaletasunak erakarrita. Geroztik fin aritu da dantzan zein lanean, eta baita parrandan ere. Erizaina da izatez, beraz bere ondoan egonik ondo zainduta gaude ziur!

AHH (Artxiboa, Hedapena eta Historia)

Aintzane Sarasola
Bigarren Sarasolatarrak urteak daramatza dagoeneko dantzan, ahizparen itzalean hasi baitzen. Gasteizen ikasten dabilen arren ahal duen guztietan itzultzen da Tolosara, astean zehar pilatutako lanak egunean jartzera!

Aitor Agirresarobe
Aitorrek urte pare bat zeramatzan dantza ikasten bidaia baten amuarekin taldera ekarri genuenean. Beste hainbat taldekidek bezala kanpoan ikasten du, baina itzuleran gogo biziz etortzen da entsaioetara eta lana ere jarri diogu, nola ez!

Jantziak

Xabier Artola
Irurako harribitxia da Xabi gaztea. Txikitatik dabil dantzan eta entsaioetarako duen diziplina bera mantentzen du taldeko gainerako lanetan ere. Fundamentuzko mutila, ingurukoak "dantzan" jartzeak ez dio beldurrik ematen!

Amaia Beitia
Udaberrin saltxero asko badago ere, zalantzarik gabe Amaia da afari eta parranda guztietako gatza eta piperra. Baina juergarako duen umorea galdu gabe egiten du lan taldean ere, entsaioetako izerdi tanta guztiak alaituz. Nondik ateratzen ote du denoi kutsatzen digun indarra?

Miren Izagirre
Udaberriko ikastaro emankorren azken fruituetako bat da Miren. Belaunaldi berriarekin haize berria ekarri du taldera eta agindutako guztiak betetzen ditu ahotik irribarrea kendu gabe. Hori bai, laster batean bera hasiko da gainerakoei aginduak ematen...

Musika saila

Iñigo Azkue
Familiatik datorkio Udaberrirekiko lotura Iñigori. Betidanik izan du musikarako trebetasuna eta oso gustuko du tresna berriekin probak egitea eta esperimentatzea. Taldera iritsi zenetik erakutsi zuen fundamentuak musikarien arduradun kargua hartzera eraman du ezinbestean.

Josu Lizarralde
Taldeko txistularietako bat da Josu, umetatik jotzen duen arren 16 urterekin hasi zen taldean. Serioa eta isila izan arren ez du oztoporik lanen bat agintzen zaionean eta beti erakusten du gauza berriak ikasteko gogoa. Ez da gutxi!

Iosu Artutxa
Fanfarre eraberrituko tanborreroa da Josu, mutil alaia eta langilea arreba bezalaxe. Zarata ateratzea gustuko duen arren edozein lanetarako egokia da eta laster baino lehen ikasi du Udaberrin badagoela denentzat nahikoa lan!

Eneko Hartsuaga
Urteak eskean pasa eta gero azkenean lortu zuen modu batera edo bestera taldean sartzea. Beretzako definiziorik egokiena musikaria dela esatea da, makina bat instrumentu jotzen ditu eta. Jarriko balitz, edozeri aterako lioke musika, egoskorkeria hutsez bada ere.

Udaberri munduaren

Udaberri munduaren zilborra ez delako, eta taldekideok saltsero hutsak garelako, dantzari zein musikari, denok daukagu taldez kanpo egiten dugun jardueraren bat. Hona hemen aurtengoak eman dituen ekitaldi garrantzitsuenak.

Poxpolo eta konpainia

Errepikatzen diren ekintzak ohitura bihurtzen dira, eta ohitura onak ez galtzeko, aurten ere taldekide batzuk Poxpolo eta konpainiaren emanaldi berezian parte hartu zuten. Garrantzitsua da herriko eragileen arteko lankidetza bultzatzea eta, ahalegin horretan, haurrentzako emanaldiak eta dantza uztartzea lortzen dugu urteroko elkarlanaren bidez. Jarrai dezala ohitura honek beste urte askoan!

Itsasoaren emazteak

Juan Urretavizcaya taldekideak alboko herriko Oinkari dantza taldearen gonbidapena onartu zuen, eta hainbat adierazpide artistiko biltzen dituen *Itsasoaren emazteak* ikuskizunean parte hartu zuen. Musika, antzerkia eta dantza tradizionala nahiz garaikidea erabili zituzten Euskal Herriko kostaldeko emakumeen bizitza latza nolakoa zen azaltzeko, eta maila handiko ikuskizun hunkigarria eskaini ziguten denen artean

Irurako jaiak

Nola ahaztuko ditugu, bada, iraileko sanmielak? Gero eta nabarmenago, taldeko harrobi bilakatzen ari den herria da Irura ø eta, beraz, ezin bazterrean utzi taldekideek herriko festak alaitzeko antolatzen duten soka-dantza. Are gehiago, kontuan harturik taldeko musikariek jartzen diotela doinua ekitaldiari. Horrez gain, aipatzekoa da bertakoak diren bi taldekidek, Olaiak eta Xabik, hartu dutela herriko dantza ikastaroen ardura ø eta, beraz, baita dantzari txikia antolatzekoa ere.

zilborra ez delako...

AHORA!

Aurten Tolosako kultur panorama ia osoa ekitaldi bakarrak hartu du: Kilometroak jaiak. Taldekide asko eta asko ibili dira antolakuntzan murgilduta, eta taldeak berak ere izan zuen festan parte hartzeko aukera, baina atal hau taldez kanpo egindako ekintzei dagokie soilik. Hala, bada, Itzea, Aitor, Irati Artutxa eta Xabik agurra egin zuten hasiera ekitaldian bertaratutako agintari eta ikusleentzat, eta aurreraxeago Juanek ere parte hartu zuen dantza garaikideko koreografia bat eskainiz.

Amarotz

Beste klasiko bat. Amarozko dantza taldeak emanaldia eta soka-dantza eskaini zituen, aurten ere, uztaileko lehen asteburuan. Bertan Andoni dugu taldeko “gaztetxoak” firme jartzen dituena eta Aitor, berriz, kapitain eta aurresku lanak egiten dituen dantzaria. Aurtengoa urte berezia izan da, festak alaitzen hain trebea zen Pili gabe pasatako lehen jaiak izan dira-eta. Dagoen tokian dagoela, festan eta irrintzika jarraituko duelakoan gaude.

Tolosako uxoen bila

Urteroko moduan, orijinal, sortzaile eta umoretsu izateko grinaz hasi ginen inauterietako mozorroa prestatzen. 2012. urteko inauterietan Tolosa aldarrikapenez josi izanak, ordea, beste urte betez aukera eman zigun, pankarta atzeko egoerari komikotasun puntua jartzeko.

Orijinaltasunik ez, beraz, formatuari dagokionez. Gaiak, ordea, bazuen jokorik gure belaunaldiko tolosarrentzat. Herriko erdigunea, Trianguloa, usoen plaza zen txikiak ginenean, eta bat-batean desagertu ziren guztiak.

Gure aldarriak, beraz, goizak ogi-apurrik bota ezinik geratu ziren aiton-amonen aldekoak izan ziren aurtengo Astelenitan, eta baita Kaleko Espezieen Aldeko Plataformaren aldekoak ere. Ekologistek eta pentsiodunek bat egin genuen, beraz, eta Non dago Tolosako uxoa? leloa zabaldu genuen zezen-plazan, txarangen atzetik, nahiz taberna eta txosnetan.

2014rako ea formatua aldatzen dugun gutxienez...

Bihotzetik harilkatzen duten eskuak

Kresalak urtetan higaturiko azala arrantzelearen eskuetan irakur daitekeen bezala, jostunaren eskuek ere badiote zerbait, emandako puntada bakoitzari buruz. Ordu asko eskatzen dituen lana da joskintzarena, eta ez da gutxiagorako: hutsegiterik txikienak eskatzen du, haria eta orratzarekin marrazturiko bidean atzera egin, eta oihalak berriz batzen hastea.

Ofizio askoren moduan, oso gertu, gertuegi, egon ohi dira jostunak, afiziotik. Eguneroko kontua da eurentzat, beraz, lagun eta senideen arropa zaharkituari adabakiak jostea, edo garai batean bezala, jantzirik dotoreenak sortzea.

Norberta Lobregatek *"oso pelmak*" garela dio, barre artean, Udaberrio kideoi erreferentzia eginez. Clemen Dominguez eta biekin elkartu gara kafe baten bueltan, lana franko egin baitute musutruk, dantza taldeko pololo, zapi nahiz azpiko-gonak eginez. Eurekin batera, Loli Ezeizabarrenaren eta Koro Dorronsororen arte-lanei esker, gure dantza-pausoek dotoreagoak dirudite oholtza gainean.

Guztiak dira ama, amona edo izeba. Hori da Udaberri dantza talde gaztearekin duten soka, eta eurak ere gazte hasi ziren orratza eta hariarekin jolasean. *"Ni 15 urterekin hasi nintzen, gutxi-gorabehera, lehengusu batekin, eta geroztik jardun hori lanbide bihurtu zen niretzat"*. Norbertaren kasua, berriz, antzekoa da hastapenei begira jarrita, 16 urterekin Iruñera joaten baitzen josten ikastera: *"Aspaldi zen hori! Gero ez dut sekula joskintza lanbide izan, eta etxeetan-eta zerbitzu batzuk eskaintzen nituen. Kapritxoz josi izan dut beti"*, dio.

"Garai batean, neska gazteak ez ziren beti txuri-beltzez janzten"

Jostunen mundua ondoegi ezagutzen ez dutenentzat, bereizketa garrantzitsu batez aritu ziren kafe-solasaldian: moztearen eta jostearen arteko aldeaz. Josi daiteke mozten jakin gabe, alderantziz, ordea, zailtasunak izan ditzake jardun horretan ari denak. Biek hala biek, dena den, ordu mordoa eskatzen dute: *"Gauza batzuekin segituan amaituko duzula pentsatzen duzu zure artean. Gero, ordea, azken puntada eman arte, pentsatutakoa baino askoz ere denbora gehiago behar izaten da ia beti"*, azaldu du Clemen Dominguezek.

Lehen joskurak, dantzarako jantziei

Eskarmentudun jostunak diren arren, Norberta eta Clemen lehen aldiz aritu dira euskal tradiziozko jantziak harilkatzen. Esku-lan trebean abiada hartzeaz harago, euskal ohituren eta atontzeko bideen inguruan jakin-mina ere piztu die honek.

Gaur egun, lehen baino aniztasun handiagoa dago jantzietan, Norbertaren ustez: "*Lehen, ttanttodun jantzia eramaten zuten guztiek soinean"*. Bat dator Clemen ere, eta estetikoki egungo trajeak politagoak direla uste du. Hemen, ordea, kalean ere sarri entzun daitekeen eztabaidatxoa sortu da bi jostunen artean: "*berezko"* jantzia ttanttoduna al da?

Sanferminzalearen jantzia da Norbertak txikitatik ezagutu izan duena, bere nafar nortasunetik; hala ere, kolore eta forma berriak azken urteotakoak zaizkio. Clemen Dominguezek, ordea, Errenteriara egindako bisita batean jasotakoa azaldu du solasaldian: " *Uste dut ttanttoduna*

ere ez dela berezko euskal jantzi tradizionala. Garai batean, neska gazteak ez ziren beti txuri-beltzez janzten. Behin Ramon Garciarenean egon nintzen, Errenterian, eta sekulakoa da duen jantzi erakusketa. Berak, liburu zaharretan-eta oinarrituta, ttanttoduna jatorrizko jantzia ez zela esan zigun behintzat".

Dirudienez, garai batean adabakiekin sortzen zituzten jantzi guztiak. Izan ere, "*oihalak saltzera etortzen zirenean, metro asko erosteko ohitura zuten. Horrela, puskak soberan geratzen zirenean, lau puska desberdin hartu, adibidez, eta gona bat egiten zuten"*, dio Clemenek. Baina ez omen dago jantzi konkretu bat, jatorrizkoa hori dela esateko. Oihala erosi eta bi jantzi egiteko adina ematen bazuen, gero soberan geratzen zen oihal puska hori gona luzatzeko-eta erabiltzen omen zuten, beraz.

Josteaz gain bestelako kulturarik ere badute emakume hauek, beraz, eta zer interesgarriagorik dantza tradizionala muin duen talde batentzat, gure arbasoen ohiturak ezagutzea baino!

"Azken puntada eman arte, pentsatutakoa baino askoz ere denbora gehiago behar izaten da ia beti"

Kikarek gero eta kafe gutxiago dute barruan, baina hitzez bete ditugu katiluak. Joskuntza, hainbat hamarkadako estetika eta off the record geratu diren hamaika konturen testigu izan da kafetegiko mahaitxoa. Euskal dantzarako jantziak josteak oinak astintzeko grinarik ere sortu die bi jostunei, eta adina aitzakiatzat jarri duten arren, gazte dituzte, oraindik, begiradak.

Nahi dutenean zabalik izango dituzte, beraz, Norbertak, Clemenek, eta hitzorduarekin bat egiterik izan ez duten Lolik eta Korok ere, Udaberri dantza taldeko ateak. Dantzarako, kafe baten inguruan elkartzeko, eta behar dutenerako. Sekula nahikoa izango ez den arren, balio beza testu xume honek, beren lana plazaratzeko. Eskerrik asko.

Alez ale...



Eskuartean daukazun aldizkari hau ez daukazu kasualitate hutsez eskuartean. Gurean jada urteroko ohitura da *Arin Arina* kaleratzea. Edo urteroko erronka. Baina bakarren batek izan zuen behinola ideia, aldizkari hau sortzearena. Gurea, beraz, soka hari jarraitzearen meritua besterik ez da. Sokaren mutur batean geundeke gu; bestean, **Joxemi Saizar, Juan Mari Urruzola eta Fernando Rojo,** besteak beste. Udaberriko pisu astunak, zentzurik onenean.

Mahai baten jiran elkartu ditugu hiru lagun hauek, *Arin Arin* aldizkariaren sortzaileak. Meritua, orduan, beraiena gehienbat.

.- Noiz eta nola sortu zen *Arin Arin* aldizkaria sortzearen ideia?

F.R.- Hori erantzun dezala Joxemik, ideia berea izan zen eta!

J.S.- 94ko ekainean, Laskorain Ikastolan ateratako aldizkari bat eredu hartuta sortu zen *Arin Arin*aren ideia. Aldizkariaren formatua mantenduta, dantza taldearen gaietara moldatu, zirriborro moduko bat egin, eta urte hartako azaroan egin genuen Udaberriko batzarrean erabaki genuen baietz, *Arin Arin*a estreinakoz argitaratuko genuela. Eta abendurako plazaratu genuen lehendabiziko alea. Ordenagailurik eta gabe, baina moldatu ginen orduan ere gure artikuluak aldizkarian elkartzeko.

J.M.U.- Beno, nik erabili nuen ordenagailua artikuluak idazteko e…

.- Zein asmo edo intentziorekin sortu zenuten?

J.S.- Udaberriko komunitate barrurako zerbait egin nahi genuen, batez ere, orduko kideei eta aurreko belaunaldiei zuzendua. Gure istorioak kontatzeko, bidaien eta ikastaroen berri emateko… Halako kontuak zabaldu eta ezagutzera eraman nahi genituen, taldeko kohesioa indartzeko.

F.R.- Udaberriko kide ohiekin harremanetan mantentzeko ere baliagarri izango zela pentsatzen genuen, gure aurretik beste hiruzpalau belaunaldi ere egon zirelako. Haiei jakinarazi nahi genien, Udaberriko parte izaten jarraitzen zutela, eta gu ez ginela ezer haiek gabe. Etxera bidaltzen genien aldizkaria, eta espero baino oihartzun handiagoa izan zuen; jendeak eskatu ere egiten zizkigun. Horretan sekulako ahalegina egin genuen, denen helbideak-eta lortzen aldizkaria bidali ahal izateko, batez ere, Juan Marik.

J.M.U.- Zaila zen jende horren guztiaren helbideak izatea, eta horregatik sortu nuen datu base bat. Auskalo noiztik dagoen eguneratu gabe… Aldizkaria egiteko maiztasuna, berriz, ondo gogoan dut: ahal zenean. Horrez gain aipatzekoa da, taldeko jendeari zein dantza mota egiten zituzten azaltzeko ere erabili genuela aldizkaria: haien historia ezagutzeko, nondik zetozen jakiteko... Zentzu horretan despiste handia zegoen taldean.

.- Zein zen orduan taldearen egoera? (indartsu ote zegoen, ez…)

F.R.- Artean oraindik ere nahikoa indartsu zegoen Udaberri. Esango nuke 2000ko hamarkadatik aurrera hasi zela kontua apur bat ahultzen, gure belaunaldiko jendea ezkontzen eta haurrak izaten hasi zenean.

J.S.- Baina, pentsa, *Arin Arin*aren bigarren alean orduko lokal berriaren irekiera ageri da, eta gogoan dut bertan lagun asko ibili ginela lanean, tartean, gazte mordo bat. Jenderik, behintzat, ez zen falta. Eta jardueretan ere indartsu genbiltzan: dantza eta musika-tresna ikastaroak, ikastolako taldea, ezkontzak, inauterietako konpartsak…

J.M.U.- "Xirulikan" ere orduantxe egin genuen. Koreografia tradizionalekin egindako emanaldi erraldoi

“Guk egindakoari jarraipena emateak, gure lana baloratzen du”

bat izan zen, ordura arte probatu gabeko formato berri batean, baina betiko esentzia mantenduz. Taldeak apustu handia egin zuen egitasmo honekin. Bi jaialdi potente egin genituen, eta hartan indar dezente joan zitzaigulako-edo, atzetik beherakada txiki bat etorri zen.

.- Nola egin zenuten lan banaketa?

F.R.- Nik esango nuke egitura eta lan banaketa Joxemiren ardura izaten zela, bera baitzen erredakzioko nagusi, nolabait esatearren. Juan Marik, berriz, Folk-kontuak egiten zituen beti, azken orrian. Eta nik, momentu hartan taldeak zituen jardueren inguruan idazten nuen: dantzak, batzarrak, entseguak, inauteriak… Ahaztu gabe, elkarrizketa honetan falta den Laienek ere egin zuen ekarpenik aldizkarian, bidaietako kontuak-eta idatzita.

J.S.- Nik elkarrizketak eta halakoak egiten nituen, eta aldizkariaren zuzenketak ere bai. Eta maketazioak ere nik moldatzen nituen nola hala, arkatzez eginda eta era nahiko xelebrean.

J.M.U.- Taldean nahiko jende bazebilen ere, *Arin Arin*eko erredakzioan ez ginen lagun asko. Gure artean moldatzen genuen guztia.

.- Zer iruditzen zaizue gaur egungo belaunaldiak zuen lanari jarraipena ematea?

F.R.- Oso gaizki, gu bertan ez gaudelako! [Barreak] Niri oso ondo iruditzen zait. Gure ondorengoek idatzitako guztiak oso gogotsu irakurri ditut, iruditzen baitzait guk egindakoari jarraipena emateak gure lana baloratzen duela, izena eta mantenduta… Oso positiboa belaunaldi berria egiten ari dena.

J.S.- Gainera guk aspaldi sortutako ideia hura garatu dute: gaurkotu, txukundu, digitalizatu… Beste kontu bat da orain. Eta nik ere oso gustura jasotzen ditut belaunaldi berrien testigantzak.

J.M.U.- Digitalak duen abantaila gainera ikaragarria da, orain Fernandok lasai idatzi ahal izango lituzke bere txapa amaiezin horiek…

.- Transmisioa ardatz izan zenuten aldizkari honekin. Orain ere betetzen dute baldintza hori?

F.R.- Erabat. Ni oraindik ere Udaberrien parte sentitzen naiz, horixe izan baita nire bizitza, eta *Arin Arin*ak horretan asko laguntzen dit. Pozgarria da, benetan, oraingo taldekideak zertan eta nola dabiltzan jakitea.

J.S.- Ni taldetik apur bat urrutiago nago orain, baina gustatzen zait jakitea oraingo kideak martxan ari direla, bizirik dagoela taldea. Udaberrirekin harreman sakon edota laburra izan duen edonorentzat da aberasgarria horrelako euskarri bat izatea.

J.M.U.- Eskertzen da, bai. Gainera, oraindik ere edozein emanalditara txistua jotzera edo joan behar badugu, aldizkarian begiratu eta taldekideen izenak ikas ditzakegu! ●

Saltoka, jauzika…

Urtea hasi zenetik amaitzear dagoen honetara, hainbat plazatan ibili da Udaberri. Era guztietako emanaldiak eskaini ditugu, kalekoak edo oholtza gainekoak, bakarka edo beste talderen batekin, Euskal Herrian edo atzerrian. Urte oparoa aurtengoa zalantzarik gabe.

Lizartzako Euskal Eguna



Aurtengo lehen emanaldia ez zen guztiz ortodoxoa izan, ez horixe! Lizartzatik etorri zitzaigun euren euskal festan parte hartzeko deia, nola egin muzin halako zerbaiti? Goizean kalejiran egin genuen dantza herriko gazte eta helduen dantza taldeekin txandaka, eta bazkalosteko kantu saioaren ostean Unsain anaien erromeria alaitzea egokitu zitzaigun, nahiz eta bertakoek behar gutxi izan, gu gabe ere badute eta behar adinako umorea! Guretzat egunpasa polita izan zen eta hurrengo urtean ere errepikatzeko gogoz gelditu ginen.

San Joan bezpera



Emanaldi berezi batetik urteroko tradizio protokolariora. Horrek ez du esan nahi, ordea, gustuko ez dugunik; taldekide gehienentzat urteko emanaldirik politenetakoa da San Joan bezperako suaren ondoren egiten dena. Airean egoten den ke usaina, lehen aldiz bandaren notak entzutea, kanpaiak zortzikoaren erritmoan… Momentu hunkigarria da jendetzaren artetik Santa Maria elizaren aurreko oholtza gainera igotzea. Urduritasunez betea, uztai handiek zutik eutsiko ote dioten beti zalantzan… Apusturako unea, zenbat lore eroriko zaizkien asmatu nahian. Festa aurreko espektatibaz gainezka. Nola ez zaigu, bada, gustatuko?

Argentinarrak Tolosan



Uztailean arbaso euskaldunak dituzten argentinarrez osatutako taldea izan genuen bisitan. Necochea herriko euskal-etxean dute bilgunea eta hantxe ikasi dituzte Euskal Herria utzi zuten aitona-amonek irakatsitako dantzak. Eta nola ikasi ere… Larunbat eguerdi batean Plaza Zaharrean ezarritako oholtzan izan genituen ikusgai. Horiekin batera, ordea, guk ere bagenuen nobedadea. Lehen aldiz dantzatu genituen Lapurdiko dantzak belaunaldi berriarekin eta fanfarre eraberrituarekin. Ez zen beraz nolanahiko emanaldia izan!

Udaberri Hungarian

Aurrerago bidaiari buruzko atal oso bat izango bada ere, emanaldiei buruzko sail honetan ezin aipatu gabe utzi Hungariako Szeged eskualdeko hainbat herritan eskainitako saioak. Lau izan ziren, guztira, abuztuko eguzki kontinentalaren azpian egindako dantzaldiak. Beroa itogarria izanik ere, genuen onena eman genuen, Euskal Herria, gure kultura eta gure dantza eta musikak Europan barrena hedatzeko ardura baikenuen. Harrera bikaina izan zuten gure ikuskizunek eta, eszenatokiak sarri oso egokiak izan ez arren, ongi moldatu ginen, bidaian izan genuen giro apartak eta umore bikainak lagunduta.

Kilometroak



Atal honetan ere ezin aipatu gabe utzi aurten Tolosako bazter guztiak nahastu dituen Kilometroak jaia. Udaberriri festan parte hartzeko gonbita iritsi zitzaionean kalejira bat egitea proposatu genion antolakuntzari, bidea alaitzeko eta, bide batez, guk ere bidean zegoenaz gozatzeko. Asmo horrekin abiatu ginen goizeko hamarretan Usabalgo lokaletik, eta San Blasen amaitu genuen gure saioa, Unsain anaien kontzertuan dantzan. Saioa bukatutakoan gehienok batera edo bestera lanera joan behar izan genuenez, ederra izan zen, goizean bederen, festaz gozatu ahal izatea.

Auzolan festa



Hungariatik bueltan, udazkeneko egun euritsu batean tokatu zitzaigun berriro ere Lapurdiko Ihauterietako dantza koloretsuak Tolosan eskaintzea. Auzolan festaren inguruan bildu ziren herriko eragile ugari eta nola ez, Udaberri ere bai. Eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere herriko aterpe guztiak aprobetxatu genituen dantza pixka bat egiteko. Bazkalostean Zesuma taldearen kontzertua girotzen aritu ginen, eta kontzertua bukatu eta gero Kalean txarangaren atzetik jarraitu genuen. Hortik aurrerakoak ez dira kontatzekoak...

Harrobia lantzen

Urtero legez, aldizkari honetako atal garrantzitsu bat eskaini nahi diegu ikastaroetan dabiltzan haur eta gaztetxoei, haiena baita taldearen etorkizuna. 2013-2014 ikasturtea hasia da jadanik eta martxa onean doa, baina guk hemen uda aurretik amaitutako ikasturtearen errepasoa egingo dugu.

Dagoeneko nahiko finkatua izaten dugu urteko egutegia, izan ere, dantzari txiki gehienak elkartrukeak izaten dira eta, beraz, Inauterietan edo Tolosako dantzari txikian gonbidatzen ditugun herrietatik jasotzen dugu guk ere joateko gonbidapena. Toki hauek guztiak bisitatzeko aukera izan dute aurten Udaberriko ikasleek:

ALEGIA: 2012 ko abenduak 3
UZTURRE EGOITZAKO EMANALDIA: 2013ko urtarrilak 19
INAUTERIETAKO DANTZARI TXIKIA: 2013ko otsailak 9
TOLOSAKO DANTZARI TXIKIA: 2013ko martxoak 23
LESAKA: 2013ko apirilak 21
OIARTZUN: 2013ko apirilak 21
ERRENTERIA: 2013ko maiatzak 1
GASTEIZ: 2013ko maiatzak 18
LEIDORREKO EMANALDIA: 2013ko Maiatzak 29

Ortzadarraren bila



Maiatza inguruan Leidorren antolatzen dugun ikuskizunak eman ohi dio kolorea ikasturteari eta, aurten, inoiz baino gehiago, ortzadarrari eta koloreei buruzko istorio bat izan baitu ardatz. Iaz jorratzen hasitako bideari jarraiki, ipuin bat kontatuz kantua eta dantza oholtza gainean uztartu zituen ikuskizun bat prestatu genuen aurten ere. Horretarako bidelaguna pasa den urteko berbera izan zen: ikuskizunaren parte iaz baino are gehiago bilakatu den Lask abesbatza. Baina has dezagun kronika dagokion tokitik, hasieratik.

Alamiren istorioak nolako arrakasta izan zuen ikusita, aurten ere bide berari ekitea pentsatu genuen, baina lana apurtxo bat zailagoa zen aurten: ez genuen abiapunturik, hutsetik abiatu beharra zegoen. Hainbat taldekide elkartu ginen, ideiak botatzen hasi eta zerbait suertatuko zelakoan, eta kontzeptu bat behintzat lortu genuen: ortzadarrarekin zerikusia izan behar zuela erabaki genuen.

Nork agindu du mundu kolore-bakarra, egunero irten ahal bada ORTZADARRA??

Unai Iturriaga

Hortik aurrera sorkuntza lana etorri zen, istorioa bera asmatu eta idaztea. Bestalde, abesbatza Benito Lertxundirekin eman beharreko kontzertu bat prestatzen ari zen, eta errepertorio huraxe baliatu beharra geneukan ipuinean txertatzeko. Pixkana borobildu eta ondu genuen Markox eta zazpi tximinia magikoen kontua. Eta hortik aurrera urteroko prozesua osatu behar: dantzak asmatu, jantziak pentsatu, entseguak antolatu…



Hori bai, aipamen berezia eta gure esker ona merezi dute abentura honetan lagun izan genituen Mikel Medrano eta Txoan Ormazabalek, orduak igaro baitzituzten grabatzen lehenbizi eta grabaketaren soinua txukuntzen ondoren.

Hasierako mundu grisetik bukaera koloretsurako bidea entretenigarria eta polita izan zen, eta amaieran irakasleek ere izan zuten dantzarako parada. Ikasturteari agur esateko modu paregabea izan zen zalantzarik gabe.





Ezin dugu atal hau itxi aurten, bigarren aldiz, ikasturte osoan lagun izan ditugun guraso batzordeko kideei eskerrik beroenak eman gabe. Zuen laguntzarekin, dena da arinago eta errazago. Eta ikuskizunaren bukaeran behin eta berriro entzun genituen hitz gogoangarriekin bukatuko dugu; lezio bikaina dira haurrentzat nahiz helduentzat, guztiok geure bizitzan aplikatzeko modukoak.

Nork dio beranduegi dela?

Plaza dantza ikastaro eraberrituek izandako arrakastaren berri eman genizuen iazko alean, ikasturtea hasia baitzen dagoeneko. Baina ezin izan genizuen kontatu entseguetan nolako giroa sortu zen, zenbat dantza ikasi zuten, zenbat barre egin zuten… Arrakasta zein borobila izan zen, azken batean.

Askok diote trebetasun berriak ikasteko garairik egokiena haurtzaroa dela. Hizkuntzak direla, kirola dela… Egia izango da, bai, baliteke barneratzeko gaitasun gehien orduan izatea, baina horrek ez du esan nahi helduaroan saiatu ezin denik, eta ezta saiatze horretan ongi pasa ezin daitekeenik ere.

Irati Artutxa irakasleari behin baino gehiagotan entzun genion bere talde kuttuna zela helduena, eta neurri handi batean berea da taldekideen artean sortutako giro apartaren errua. Ikusi besterik ez dago urteroko Erromerian gertatzen dena. Aulki bakarra ere ez beteta, baina ez afarirako txartelik saldu ez delako, denak dantzan aritzen direlako baizik!

Ikastaroen arrakasta benetakoa izan zela erakusteko beste froga bat ere badugu. Froga grafikoa. Taldeko lekuko baten aurrean, ikastaroetako hainbat ikasle Zarautzen dantzan ibili ziren bertako txistularien doinuei jarraituz. Eta hori ikasturtea bukatua zutenean! Ondo ikasitakoa ez da berehalakoan ahazten…

Arbasoen ospakizunak, guretzat ere festa

Urtea hasi bezain pronto gorriz margotzen dugun eguna da, Dantzari Txiki eta Erromeria egunarena. Ez da gutxiagorako, haur, gazte eta heldu dantzan jartzen baititugu. Eta sarri, bileritis pixka bat dugula gure artean esaten dugun arren, egia da guzti-guztiak beharrezkoak direla egun seinalatua antolatzeko.

Martxoan izan zen aurtengoa, eta 300 neska-mutilek bete zituzten herriko kaleak, goizeko kalejira erraldoian. Ez genuen klarisetara arrautzarik eraman, baina eguraldia gogoratu zen gurekin, eta antolaturiko guztia bere bidetik joan zen, Errenteria (Gipuzkoa), Galdakao (Bizkaia), Hendaia (Lapurdi), Atarrabia (Nafarroa), Lesaka (Nafarroa) eta Gasteizko (Araba) dantzari txikiekin eta gureekin batera.

Ehunka haurri buruko zapia lotu, eta bazkariaren ondoren galtza eta gonak beren lekuan jarri ondoren, parrandarako gogorik ere izaten da, eta ia hamarkada beteko duen erromeriak, inoizko arrakastarik handiena izan du aurten.

Afari ederraren eta sagardo ziriaren berotasunean, Zerkausiko eserleku guztiak hutsik geratu ziren Zesuma erromeria taldearen doinuen erritmora, eta lotsatienek ere sueltoan trebatzeko aukerari heldu zioten.

2014rako hasi gara motorrak berotzen. Berriz ere margotuko dugu gorriz egutegia! ●

-Amuan-

Iñigo_Irurzun **Beñat_Azaldegi** **Iosu_Artutxa**

Kanpotik ikusita, Udaberri dantza talde soil bat izan liteke agian. Ze begiekin begiratzen den… Barrutik, ordea, erabat aldatzen da ikuspegia. Familia handi bat da Udaberri. Familia ugari bat, denboraren joanarekin gero eta ugariagoa bilakatzen ari dena. Utzi inork gutxik eta, urtez urte, geroz eta gehiago dira Udaberriko senide izatera animatzen direnak. Horrela ugaritzen da familia.

Azken urte hau berezia izan da zentzu horretan. Sekula baino ekarpen handiagoa izan du Udaberrik fitxaketa eta inkorporazio berrien artean. Hungariako bidaia, fanfarrea osatu beharra… Aitzakia oro da balekoa, bidaia handi honetan hasteko. Horrexetarako deitu zieten, esaterako, Iñigo Irurzun eta Iosu Artutxari. Batek klarinetea jotzen, besteak perkusioa, mutil egokiak izan zitezkeela-eta, barrura. Beñat Azaldegik, bestalde, lehendik ere tentatuta zuen Udaberriko harra. Dantzarekin harremanak hasita, Valladolideko La Secara eginiko bidaia izan zuen taldeko bataioa. *“Denbora pixka bat pasata proposatu zidaten, dantza batzuk ikasita Hungariara joan ahal izango nuela, eta bertatik, taldera zuzenean”*. Esan eta, noski, egin.

Hasiera batean, pereza pixka bat ere ematen omen zion Beñati, saltsa gehiagotan ez sartzeko agindu baitzion bere buruari. Baina udaberritarren abentura horietako bat izango zela ikusita... Ez egiteagatik damutu baino lehen hasi egingo nintzela pentsatu zuen. Irurzuni ere ezetz esaten omen zion buruak hasiera batean, udan beste bidaia potolo bat ere ba omen zuela eta: *“Baina taldekideen laguntzaz, azkenean, animatu egin nintzen”.* Orain, aurpegian ikusten zaio inongo damurik ez duela.

Bihurriagoa, agian, Iosuren pentsamoldea, Udaberriren proposamenari baiezkoa ematerakoan. Parrandak aipatzen ditu, taldeko parrandak imajinatu omen zituen segidan baiezkoa eman aurretik. Momentu on asko etorriko omen zitzaizkion erabaki horren atzetik: saioak, entseguak, bidaiak… Hala, taldeko musikari bezala hasi zen Hungariara bidean, artean fanfarreko arduradun bilakatuko zela jakin gabe. *"Orain, 'dantzaria' ere banaiz eta, dirudienez, taldearen edozein lanetarako egokia"* dio Artutxak. Dantzari moduan ez, behar bada, baina dantzan ere hartu izan du parte Iñigo Irurzunek: *"Lehenengo entseguan, klarinetea jotzeaz gain, dantza batean parte hartzeko aukera eman zidaten, kaxarranka altxatuz!"*. Horrela, oharkabean hasten da bat udaberritar izaten.

Hiru hauen artean, Azaldegi dugu beteranoena, Joxe Nazabalen "astearteetako taldean" lehendik ere aritzen baitzen: *"Eneko Hartsuagaren burugogorkeriagatik izan zen, basikamente. Hasi hadi, probatu ezak... Eta nik ezin ezetz esan"*. Talde dinamikan, baina, udako bidaia famatuarekin batera hasi omen zen, eta hasieratik sentitu omen da bat gehiago, bere ustez, udaberritarrek eskuzabaltasuna baitute indargune. Irurzunek ez zuen horrelako harreraik espero: *"Taldekide guztiek lagundu zidaten asko, eta ikaragarrizko erraztasuna izan nuen taldearen parte sentitzeko"*. Udaberrik duen lanerako gogoa eta giro ona ezin litekeela leku askotan ikusi, dio.

Erraz eskuratu omen dute taldekide guztien konfiantza. Eta, hala, taldean jarraitzea erabaki. *"Nola esan ezetz horrelako proposamen bati?"* galdetu omen zion bere buruari Iñigok. Eta *"bi aldiz pentsatu gabe baiezkoa"* erantzun. Arrazoia? Azaldegik dauka: *"Proiektu ederra da Udaberri, bai taldeak duen funtzionatzeko eragatik -denok baitugu ahotsa taldean, hasieratik gara denok erabaki ororen parte- eta baita taldekideengatik ere, ederki dantza egiteaz gain , fundamentu latza baitute denetarako!".*

Begiratzen duten begien arabera, dantza talde soil bat izan liteke Udaberri. Edota familia bat, familia ugari bat. Nola begiratzen den. Iñigo Irurzunek ere badu bere begirada: "*Lagun talde handi bat, dantza ederki egiteaz gain, beste hainbat gauza sustatzen dituena: errespetua, adiskidetasuna, euskara..."*. Beñatek, berriz, dantzaren aitzakian elkartzen den kuadrila ikusten du Udaberrin, *"lagun talde batetik abiatuta, proiektu oso bat aurrera eramateko gai dena"*. Teorian, Azaldegi bera zen taldeko bertsolari ofiziala, harik eta Artutxa agertu zen arte: *"Trebeen herri, tolosar oinarri, belaunaldi berri, festa guztien pozgarri, zer gehiago esango nizuke ba? Euskal kultura zabaldu nahi duen lagun taldea!"*. Fija zaitezte, Udaberriren definizioa eskatuta hirurek erabiltzen dute *"lagun"* hitza. Kasualitatea ote? Begiratu ondo.

"trebeen herri, tolosar oinarri, belaunaldi berri, festa guztien pozgarri,…"

Iaz urtea amaitu aurretik, Mediterraneo inguruko hamaika folklore jaialdiren eskaintza iritsi zen Udaberriko helbide elektronikora. Asko erakargarriak suertatu zitzaizkigun, baina bidaia luze bat antolatzen hasteko abiapuntua taldekideen oporraldia izan ohi da.
Gauzak horrela, eta Frantziako jaialdi bateko informazioa ere eskatu genuen arren, Hungariara Udaberriren jardunaren inguruko informazioa bidaltzea erabaki genuen. Izen-ematea onartu ziguten, eta buru-belarri lanean hasi ginen abuztuko lehen hamabostaldia antolatzen.

Autobuseko orduen nostalgia



Folklore jaialdi batek bertan egin beharreko dantzak prestatzea dakar, batetik: jende nahikoa bildu, musikariak elkartu, zein jantzi emango ditugun erabaki, eta abar. Horrekin batera, ordea, bidaiaren beraren plangintza egin behar da. Gure autobus-gidari Jonekin elkartu ginen, eta sekulako bidaia prestatu zigun.

Dantza eta aisia uztartuko zituen irteera hau finantzatzeko ere milaka bide hartu genituen, eta azoka berezirik hotzenetan ere jarri genuen mokadutxo postua, betiko boleto eta kamisetez gain.
Azkenean, Hungariako antolatzaileekin milaka mezu elektronikoren elkar-trukea egin ondoren, guztia prestatu genuen abuztuaren 3an Hungariako Szeged hirira abiatzeko. Autobusa kargatzearekin batera hasi ziren bidaiako lehen zelebrekeriak, baina lortu genuen traste guztiak nola-hala sartzea.

Bidean, Lago di Garda eta Verona ezagutu genituen lehenengo, eta horrekin batera, inguru horietako bero itogarria. Kroaziako lurrak ere zapaldu genituen udaberritarrok, Zagreben, kalejira eta guzti. Hungarian bisitatu genuen lehen hiria Budapest izan zen, eta turismoa egiteaz gain, bertako parranda ere ezagutu genuen.

Bospasei egunen ondoren Szeged-era iritsi ginen, eta urte osoan hiriaren izena ikasteko komeriatan ibili ondoren, gure ostatua Makó herrian egongo zela jakinarazi ziguten. Aurtengo uda baino lehen ez genekien arren, Hungaria bereziki erakargarria omen da spa-turismoa gustoko dutenentzat; bere lurren azpian ur termalak aberatsak direla dirudi.

Horrela, dantzan bezainbeste ordu pasa genituen bertako spa eta igerileku erraldoietan; dantza ere egin genuen horietako batean, pentsa! Lehen emanaldia izan zen hura, eta beste hiru eskaini genituen, gure antzera dantzara joandako gaztetxo poloniarrekin batera. Gipuzkoako, Lapurdiko, Arabako, Nafarroako eta Zuberoako pausoak eraman genituen Hungariaraino, eta ikusleek eskertu ziguten egindako lana.

Folklore jaialdiaren ondoren ez zen, inondik ere, gure abentura txikia amaitu, eta besteak beste, Venezia eta Monaco bisitatu genituen. Autobusean pasatako orduek, butano bonbonekin prestatutako jakiek, udalekuetan ikasitako jokoek, axerien bihurrikeriek eta hungariarrek hain maite duten pepinilloek utzitako oroitzapenei talde baten beroa gailendu zitzaion bidaian, eta uztailean baino are sare sendoagoa osatu genuen udaberritarrok.

Lehendik ere talde gaztea baginen, jende berria erakarri zuen gure giroak, eta aire freskoa gure artera sartzeko ere balio izan du abenturatxoak. Parranda franko egiten dugula egia da, bai, baina lana franko eginda balorazio ezinhobea egin genuen bidaiaren inguruan. Jarraituko dugu, beraz, jaia eta izerdia uztartzen, autobuseko ordu luze haien nostalgian beste bidaia bat prestatzeko.

2013-08-03 14:59

Bagoiez Tolosatik Hungriara!!!

"LA INFANTA, ES UNA LIANTA" jejeje,

8:22

Esnatu (esnatze bero eta turbulento xamurra) eta gosaltzea (buffet libre... jeje). Txalupin korri itea atera da! bi potrokin mutilla

P.D. Atzoko egunekо momentuik inpaktanteena, Juan botilla ura eskuan, belazean kosorika, "Ke te bataio!!" mehatxuka. EL DIABLOO!!

16:32

Txaranga Mako-n bai, bai, ta ez da broma.

gogor estutu digu
Hungriak bihotza
etxetzat hartu dugu
Lurralde arrotza
geratzen dena denez
Polit bezain motza
Senti dezagun ~~bada~~ Denok
Taupada bakoitza
Gozatuz, gozaarazi!

Beñat

23:55

Bizitzan behin bada ere, esotea daukagu Udaberriko kideok zubi azpian egungo dugula 6. #Trebiso

18:24

Oain arteko pelikulaik onena dudik gabe BLANCANIEVES Y LA LEYENDA DEL CAZADOR!

O yeah! Bikaina! Ta cazadorea, bikainagoa. Udaberrikoneskak LILURATUTA utzituzu, GORA!

CAZADOR GUAPO! ♡ Mua!

14:05

-KONTUZ PITXUREKIN!

GARAZI

13:19

Esos txoferes... denak eserlekuk euzatuta #estoesunlujazo.

Maria

19:50

Si quieres alguna tortilla tienes que romper algunos huevos.

El Club de la lucha.

BERANDU

NDOLOIN → MUXURONDA

momentu MORTALA izan da!

16:47

Almondigillak bazkaldu eta "ttak"! Guardia zibilen kontrola.
- Abe flamarike, onde bamo a pone er kontrol?
- alau del buz!
eta holaxe, buseko paretai beira ordverdi.

25

4:02

Itsaso: "♪♪ Aupa, Atori ninja, gorlari tikia, etorri zinenetik, guretzako zara, ALTZOKO ERRALDOIA!!♪"

Irati

11:37

Bihar albondigak inbeaitut :P

Pistinan ibiltzeko entrada
Baino etzun TOBOGANETAKO balio (infantan kulpa)
Jode, tobo no es ganar !!

16:35

→ORAINTXE GOGORATU NAIZ !!!

*TXALUPIN: KUNA, KUNA, KUNA TE LO DIGO EN CROACIO...

Aitorpena:

Kirioak dantzan nituen polizia sartzea zijoala esan duenen, ama egitan pixkat beldurtu inaiz. Bueno, ta maleteroa irikiunen barrutik neon, bida okumitze zaiola trajek ikutzea, le corto los HUEVOS!!

12:34

Josu, Aitor, Josu A., Idoia, Julen, Azkue eta Onin hilerrian daude JUAS, JUAS!!

Josu Aitor Josu A. Idoia Julen Azkue Onin

Hilerria geroz eta haundiagoa... aber zein dan hurrengoa TZAN, TZAN!

15:13

BARKATU eguneroko!

Piszinan izan gara ~~Szegeden~~ zagreb-en baino bueno horrek ez du importa, Importantea ondorengoa da.

PINZA JOLASEKO GARAILEA NAIZ

03:02

Denak kantari, Inigo J. a la guitarra, Odri Hepburn al bajo.

-Yo no soy Azaldegi! Yo no soy Azaldegi, soy Irurzun, soy Irurzun, soy Irurzun!

-la Bamba, version Budapest

9:42

Espero eta maite dut bihar idatziko dudan hontaz ez gogoratzea.

gustoko dut, udaberri, ginkasa, shhhh, gitarren eta amoistasu musutxue !! I love forever,

20:23

Azak bere ~~bi~~ bizitzako espektakuloik haundi ta sentimentalena in digu gitarran launtzakin: "Kartzelako inesa" (letrak: Joseba Samonandia) → KANTA SAKONA!

23:51

Koktel goxo bat hartu ondoren autobusera etorri gera eta Miren Izagirre kantatzen hasi da: zu ta ni, kortina bat ohazturik...

Aintzane

09:56

Bagoaz festibal aldea dutxa bat hartuta aspersoretan! AUPA UDABERRI!!

Bestela, mirenen gaixoaldia (Animo hemendik!) koadernoaren desagertzea (bai bai, ni izan naiz) infantaren zoza ~~[illegible]~~ aurpegi konstantea eta taldekoak txiste txarrak egiteko joera



Denbora luzez Beotibarri begira

Gertukoa da oso. Hunkigarria. Tolosar-tolosarra. Eta askorentzat, betikoa. Zalantzarik ez da, ekainaren 24ak badu urteko gainerako hainbat egunek ez duten zerbait. Tradizio paganoetatik datorren sua bestelako sinesteen garrekin nahasi izan da azkenaldian, baina usteak uste, egutegietan gorriz margotutako txokoa du San Joan egunak.

Ohiturei eskutik lotutako eguna izaki, usadio horien jatorriak jakinmina pizten du herritarrengan; jakiteko gogo hori hazi egiten da, gainera, testigantzen gainean berreraikitako adierazpen folklorikoez ari garenean. Tolosako Bordondantzaren inguruko lehen lekukotasun idatziek 1717ra garamatzate, eta Iruñeko Elizbarrutiko artxiboan gorderik daude testuak. Lekukotasun horien bidez, eta beste hainbat ahotsi jarraituz, Beotibarko guduarekin lotu izan da Bordondantza, eta gaur egun ere horixe da herrian gehien zabaldu den ustea. Zein da, ordea, sineste horren arrazoia?

1321. urteko irailaren 19an tolosarrek nafarren aurkako mendekua hartu zutela diote liburuek, eta Beotibarko gudua izena hartu zuen hark. Urteetan barrena gudu hartan ezarri izan dute Bordondantzaren jatorria, baina bada lotura hori aitzakia historikotzat duenik ere.

“Bordondantza Beotibarko guduarekin lotzea aitzakia da zenbaitentzat”

Jose Maria Jimeno Juriok duela hiru hamarkada inguru azaldu zuen, lehenengoz, jatorri honen inguruko jarrera eszeptikoa. Bide beretik, Fernando Rojoren ustez okerra da gertakari historikoaren eta dantzaren arteko lotura: “Iztueta folkloristaren edo Pablo Gorosabel historiagilearen gisakoek ezarri nahi izan dutenaz harago, ia ezinezkoa da Beotibarko guduak eta Bordondantzak loturarik izatea”.

Badirudi, ordea, dantzak eta gerrak elkartzea ez dela kasu isolatua. Erregimen Zaharrean halako teoriak sortzea ohikoa zen, eta topiko ere bilakatu zen zenbait erritoren jatorria ideologia zehatz bateko gerra-gertaerekin lotzea. Horren adibide da, esaterako, Bascocantabrismo deituriko teoria, gerora Esteban de Garibayk eta Araquistainek zabaldu zutena: “Iragana desitxuratzen dute, orainaldia arrazoitzeko. Historia manipulatzea da hori”, dio Rojok.

EZPATADANTZAREN FRUITU

Euskal Herri osoan ezagutu eta dantzatzen duten Ezpatadantzaren itxura du, San Joan eguneko Bordondantzak. Egia da, ezpatekin dantzatu beharrean, bordoiekin egiten zela antzina, eta alabardekin aritzen direla gaur egun. Koreografia osoari begiratuta, ordea, jatorri argia dute mugimenduek.

Fernando Rojok bere lan batean gogora dakarren moduan, Julio Caro Barojak aspaldi azaldu zuen San Joan eguneko dantza guztien berezitasuna: Europa osoan barrena, gizonez osatutako konpartsa handiek armekin dantza egiten dute egun horretan.

Euskal Herrira itzulita, Lesakan, Zugarramurdin, Lakuan, Balmasedan nahiz Oiartzunen ezagutu izan dira San Joan eguneko dantza armadunak. Areago, orain Bordondantza eta aspaldi Alagaidantza izena zuena, Beterriko hainbat herritan (Andoain, Hernani, Urnieta, Errenteria, Alegia) ere egiten omen zuten Larramendik dioenez. Lekukotasun hauen aurrean, Rojok argi dauka guduaren teoria erabat deuseztatzen dela.

ERROMESEN OMENEZKO DANTZA?

San Joan egunaren inguruan amaigabeko naturako sinboloz jositako mundu bat dago, adituen hitzetan; solstizioa ospatzeko kristau tradizioaren aurreko ohitura dela diote.
Ekainaren 24ko ohiturez harago, ordea, Bordondantzaren beraren jatorria erabat ezezaguna da oraingoz. Gaur egun Tolosako Alde Zaharrean oilo-ipurdiaz gozatzen ditugun pausoak, hiru hamarkada atzera eginda berreskuratu zirenak direla aipatzekoa da. Galdutako pausoen bila joan ziren haiek, gainera, ez zuten inondik ere gerra baten gaineko koreografia bat sortu nahi izan, Rojok dioenez.

Bordondantzari kutsu militarra emateko arrazoietako bat izan daiteke, dena den, alabardak erabiltzearena: “Gerrarekin lotu beharrean, Donejakue bideko makilekin lotzea egokiagoa da. Badirudi Arrameleko San Joan baseliza erromesen geldiune garranzitsua zela, eta gaur egun ere hara joaten dira dantzariak konpletak osatzera”.

Gerrak gerra eta sinesteak sineste, ekainaren 24ak gorriz margotutako txokoa izango du beti Tolosako etxeetan. Jatorria Beotibarko guduan edo Donejakue bidean duela baieztatuta ere, dantzariek berdin-berdin astinduko dituzte txintxarriak, eta eskopetariak ere kalera irtengo dira. Fernando Rojoren ustez, beraz, argia da Bordondantzak bizirik jarraitzearen arrazoia: kultura, gurasoen belaunaldiaren hariari tiratzea eta gozatzea lirateke oinarrizko zutabe.

Ez diogu, udaberritar gazteok, arrazoirik kenduko. Sekula baino biziago dagoen San Joan egunak jarrai dezala bere bidea eta jaio daitezela ohitura berriak, tradizio zaharretatik. Orain arte belar zena, egin dadila, hemendik aurrera, gari.

“Alabarda armekin lotu beharrean, Donejakue bideko makilekin lotzen dute batzuek”

ITURRIAK

Rojo, Fernando (2001): “Bordondantza y la Batalla de Beotibar”, Euskonews & Media, 129. zkia.

Jimeno Jurio, Jose María (2013): Tolosa. Historia y folklore. Pamiela

Jimeno Jurio, Jose María & Udaberri Datza Taldea (2004): Tolosa desde la Bordondantza. Tolosa Bordondantzaren ikuspegitik. Aranzadi

LEHEN, ORAIN ETA GERO

Oraingoan niri egokitu zait Arin arinean idaztea. Udaberri Dantza Taldeari buruzko edozeri buruz aritzeko esan didate. Hala, bada, musikarien sailari buruz idatz nezake, eta nire irudipenak zein diren esan, edo taldearen antolaketaren inguruko zerbaiten inguruan hizketan aritu. Ez daramat denbora gehiegi ere Udaberrin, eta pentsatzekoa da, ezin dudala atzera begirako ezer handirik esan.
Hortaz, aspaldiko kontuez hitz egin ezin dezakedanez, eta sail bakarrean gelditzekotan musikarienean beharko lukeenez (hori ez litzateke oso originala izango), Udaberrin azken denboraldi honetan izan diren aldaketen inguruan mintzatuko naiz; Udaberriz arituko naiz.

Orain urtebete edo, Lapurdiko inauterietako dantzak berriz ere gure ikuskizunetan dantzatu nahi genituela erabaki genuen. Hura, ordea, ez zen erraza izango, lan handi orok behar duen jende eta ordu pila kontuan hartuz gero. Dantzari gehiago bildu, eta fanfarrea osatu beharko genituen. Martxan jarri ginen, ordea, eta lortu genuen azkenean. Denborak esango zuen, hura arrakastarako bidea edo lan antzua izango zen, eta Hungariako bidaia ere hantxe zegoen, epea jarriz. Azkenean iritsi zen eguna, eta abiatu ginen Europara. Joan bai, eta etorri ere egin ginen, eta denak udaberritar egin dira.

Baina bidaia bukatu zen, eta egun, nor bere zereginetan ibiliko da. Amets hura joan zen, eta orain betebeharren gurpil zoroan bueltaka gabiltza. Orain hotzean pentsatzen jartzeko garaia izan daiteke. Orain, lehen egun hotzak eta negua ere, ate-joka dauzkagula. Askoz ere gehiago gara orain Udaberrin, eta noraino iritsi garen eta norainoko bidea egin behar dugun pentsatu beharko genuke.

Beraz, nola egin behar dugu aurrera? Asko direnen formulari jarraitu behar al diogu? Atzera begiratu eta Udaberrin zientoka zireneko garaietan egindako bideari ekin behar al diogu? Hungaria urrunean ere izan genuen gai hori eztabaidagai, gau izartsu haietako batean, goizaldeko lehen argi-printzak autobusa berotzen hasi baino lehentxeago.

Ordutik hona noizbehinka etorri izan zait gau hura burura, eta gero eta argiago diot ezetz, ez diegula galdera horiei erantzunik aurkituko. Eta agian, ez diegu erantzunik bilatu ere egin behar. Denbora ez alferrik xahutzean dago giltza. Udaberrin gure herriaren kulturari sustraietatik eusten ahalegintzen garela uste dut, eta horretan sinesten. Gaur gaudenak baldin bagaude, dantza talde honetako kide sentitzen garelako da; egiten duguna maite dugulako.

Garaiak ez dira berdinak (gu berdinak ez garelako). Denbora joan egiten da, eta gu gara aldatzeko gai izan behar dugunak. Axularrek ongi zioen gisan, “oren guztiek dute gizona kolpatzen, azkenekoak du hobirat egortzen”. Dantzan eta musika joz dugu geure burua gozatzen, eta euskal kulturaren ondare hori zabaltzeko grinak gaitu elikatzen. Guk geuk hori sinesten badugu, formulak etorriko dira gero ere.

Iñigo Azkue

BIZITZAKO ZATI GARRANTZITSUA

Aurreko Arin-arinaren zenbakian Julenek idatzia irakurrita, konturatu naiz gauzek berdintsu jarraitzen dutela Udaberrin. Musikariontzat sarrera froga gainditzea erraza dagoela, alegia. Edozein hartzen dutela. Prozesu berdintsua jarraitu bainuen nik ere Udaberrin sartzeko.

Musika Akademia zaharrean ginela, Bretainiara joateko txarangila osatu nahi zutela eta klarineteak behar zituztela esan zigun Imanolek Javi Sanchori eta bioi. Baietz, noski! Zer erantzungo genuen bada? Urtetan solfeo aspergarria ikasten aritu eta Musika Bandan sartu berriak ginen. 1981eko udaberria zen. Entsaio gutxi batzuk egin akademiaren azpiko lokalean eta Gorosabelen, eta Bretainiara egun batzuk pasatzera!

Zeinek esan horrela hasi eta 1996 arte hamar bat bidai Jaca, Hungaria, Irlanda, Austria, Belgika, Italia eta Frantziara egingo nituenik? Eta gaur egungo koadrilako lagun asko talde honetan ezagutuko nuenik?

Hogeita piko urtez taldearekin harreman zuzena eta estua izateak ondorio batzuk ditu: taldekoa sentitzen naiz oraindik, nire bizitzako atal garrantzitsua da. Denboraldi hori ez da klarinetearen aitzakian bidai batzuk egitea bakarrik izan. Entsaio eta emanaldien bidez, parranda eta lagun asko ere egiteko balio izan dit. Euskal dantzak eta folklorea ezagutzeko balio izan dit. Txalaparta eta dultzainarekin saltseatzeko eta horri esker nazioarte mailako emanaldiak izateko. Nire herria Tolosa eta bere festak (Inauteriak eta, batez ere, Sanjoanak) hobeto ezagutzen eta maitatzen erakutsi dit Udaberrik. Mexikora bidaltzeko bideo bat grabatzen erotu eta gero ez dakit zertarako balio izan zuen. 1990ean Bordondantzari buruzko bideoa burutu eta aurkezteko hitzaldi sorta antolatu genuen Jimeno Jurio, Bello Portu eta Gorrotxategi hizlari zirela. Xirulikan ikuskizun gogoangarriak egin genituen. Ikerketan zerbait aritu ginen, Bedaion adibidez.

Hori taldean. Baina txarangila errepublika independientea zen. Eskiulako irteerek kapitulo apartekoa behar dute. Txarangilaren esklusiba ziren, nahiz eta perkusioan dantzari batzuk ere kolatu. Urte askotan iraileko lehen asteburua horretarako genuen gure aktuazio egutegi betean. Eta han pasatzen zena eta ez zena pasatzen gure golkoan gelditzen da. Beno, tarteka musikari ohion afarietan ere azaltzen dira orduko kontuak. Inauterietan konpartsa musikalak atera genituen, ikuilu batena, besteak beste, Beatlesen musikarekin. Gero taldeko dantzariekin eta Oargiko lagunekin Nafarroako zenbait dantza eskaini genituen Inauterietan: Altsasu, Unanua, Tutera, Olite…

Arin-arinen sorrera aldizkari honetako beste atal batean luze azaltzen da. Sendotuta ikusteak pozten gaitu, noski, jaiotzan parte hartu genuenak.

Urte batzuetan zehar harremana gutxitu ondoren, 2007an, 50. urteurrenaren aitzakian, berreskuratu genuen, Leidorreko eta kaleko emanaldiekin, liburuxka eta bideoan parte hartuz. Familia handia dela sentitu nuen orduan, taldea bere-berea sentitzen dugun belaunaldi asko elkartuz egun ederra pasatzeko.

Eta hori dena musikari esker, nahiz eta oraindik Juan Marirentzat musikari kategoria inork ez merezi eta laguntzaile edo saboteatzaile mailatik gora pasa gabe gelditu betirako.
Taldea bizirik eta kementsu ikusteak pozten nau: dantzari txikiak badaudela, emanaldi eta bidaiak, aktibitatea... Segi horrela. Bihotzetik ahora idazten dizuet. Nahi duzuen arte.

Joxemi Saizar

Txori txiki bat

Urte berri bat hasterakoan bukatutakoari begiratzea ere tokatzen da sarri, egindakoak ikusi eta hortik ikasi ahal izateko. Beste urtebete, beste mila oroitzapen, mila argazki eta mila sentipen. Denak orri bakarrean azaleratzea zaila suertatzen da. Baina guk amaitutako urteari ere jarri nahi izan diogu soinua; txori txiki baten soinua, txioz txio, twitterren sarean Udaberri Dantza Taldearen kontakizuna ekarri duena. Urtebete, eta zenbat gauza!

udaberridantza @udaberridantza Ots 2

Goizean goizetik azokarako lanean #saldabadago

udaberridantza @udaberridantza Ots 9

Eguraldi txarrari aurre eginez Udaberriko eta eskualdeko dabtzari txikiak kalean! #iñauteriak

ibai iriarte @ibaiiriarte Ots 9

Zuek argitu duzue giro grisa! “@udaberridantza:Eguraldi txarrari aurre eginez Udaberriko eta eskualdeko datzari txikiak kalean! #iñauteriak”

28kanala @28kanala Mar 14

Udaberri dantza taldeak Dantzari Txiki eguna eta erromeria aurkeztu ditu. http://bit.ly/WpjSvF @udaberridantza

Itzea Urkizu @itzeaitzea Mar 14

ANIMATU! RT @hitzatolosaldea Euskal Herri osoko dantzek bat egingo dute Tolosan http://bit.ly/X9qwTP

Irati Hartsuaga @IratiHartsuaga Mar 22

Ehun lagunetik gora bilduko gara bihar @udaberridantza ren erromerian, orain-dik baduzu animatu eta etortzeko aukera!!

udaberridantza @udaberridantza Mar 23

Hasi da erromeria Zerkausian Zesuma taldearen eskutik

udaberridantza @udaberridantza Api 21

Gaur taldeko txikienakin oiartzunen eta lesakan gaude, dantzari txiki eguna ospatzen

udaberridantza @udaberridantza Mai 1

Udaberriko dantzari txikiak Errenteriara bidean #maiatzak1

ibai iriarte @ibaiiriarte Mai 8

Hasi gara, San Juan etako dantzaren entseguak egiten, gerri gogor hauek askatzen, @udaberridantza taldearen laguntzaz, eskerrak beraei!

Olatz Artola @olatzartola Mai 26

@udaberridantza taldeare ikasturte amaierako emanaldia. #udaberri #laskabes-batza #ahora #kmk13 #ortzadarrarenbila pic.twitter.com/LkMHx6FzbC

Unai @unailas Mai 26

Zorionak @udaberridantza emanaldi bikaina!!! Ez duzue meritu makala... Aupa zuek!!! #udaberri

udaberridantza @udaberridantza Eka 13

Sanjoanen zirrara ‘Egun batez 25’ dokumentalean. Badatoz, egin klik trailerrean! http://www.youtube.com/watch?v=Rzmy27KWV2I&feature=youtu.be …

ibai iriarte @ibaiiriarte Eka 25

@udaberridantza zeinen ongi egin zenuten dantza! Zorionak eta mila Esker denagatik,emandako dantza lekzio eta #berdintasun lekzioagatik

udaberridantza @udaberridantza Uzt 13

Udaberriko txistulariak San Ferminetarat!

Tolosaldeko Ataria @tolosaldeataria Uzt 19

Argentinako dantzariak eta Udaberrikoak, elkarrekin taula gainean | Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza @udaberridantza http://bit.ly/12ZAvxG

Onintze Hartsuaga @OnintzeHartsuag Abu 6

Budapest bixitatzen @udaberridantza -ko lagunekin!!:-) pic.twitter.com/RATuG-cI3bc

udaberridantza @udaberridantza Ira 2

Helduen ikastaroak urrian hasiko dira, laster irekiko ditugu bertan izena emateko bideak. ANIMATU!!!

udaberridantza @udaberridantza Ira 12

Aurtengo ikastaroetan 130 haur dauzkagu!!! #2013-2014

udaberridantza @udaberridantza Ira 13

Odol berria!! Urteko azken fitxajeak Otxagabiako dantzak ikasten pic.twitter.com/7Tb7IwW1wz

udaberridantza @udaberridantza Urr 4

Udaberri Tolosako Kilometroak jaian izango da!! Goizeko hamarretan 6. gunetik atera eta dantzan ibiliko gara ibilbidean. Zatoz festara!

udaberridantza @udaberridantza Urr 12

Bukatu da aurtengo batzar orokorra. Onintze Hartsuaga da gure koordinatzaile berria. Hasi da aro berria!

udaberridantza @udaberridantza Urr 23

Azaroaren 23ean, 12:00etan, gure esku, beso, oin eta buruekin egingo dugu protesta, eraso sexisten aurka. pic.twitter.com/nnrHYGFkeW

udaberridantza @udaberridantza Aza 5

Gogor jarraitzen dugun lanean!Azaroaren 30ean Auzolan Festan ariko gara,Tolosa euskararen hiria izatea nahi dugulako! pic.twitter.com/N2ce0icC1c

udaberridantza @udaberridantza Urr 18

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera nola joan erabaki gabe oraindik?Aukera paregabea duzu aurrean! Zatoz gurekin! pic.twitter.com/PtlsvpUleD